


Eraikuntzaren kostuak % 0,1 jaitsi dira Euskal AEn 2023ko ekainean

Urtetik urterako balioetan, 2023ko ekainean % 3,4 igo dira prezioak 2022ko ekainaren aldean

Eraikuntzaren kostuen indizea % 0,1 jaitsi da Euskal AEn 2023ko ekainean, aurreko hilaren aldean, Eustaten datuen arabera. 2022ko hil berarekin alderatuta, kostuak % 3,4 igo dira.

Eraikuntzaren sektoreko kostuak berdin mantendu dira hiletik hilera; Obra Zibilekoak, berriz, % 0,1 jaitsi dira. 2022ko ekainarekin alderatuta, prezioak % 4,2 igo dira Eraikuntzan, eta % 0,2 Obra Zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arte aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren aldean (2023ko maiatza), **lehengaien** kostuak % 0,1 jaitsi dira, eta **eskulanaren** kostuak, berriz, konstanteak izan dira. Urtetik urterako balioetan, aldiz, lehengaien kostua % 3,8 igo da, eta eskulanarena % 2,1.

Lehengaien kostuak % 0,1 egin du behera hil batetik bestera Eraikuntzaren sektorean, baita Obra Zibilaren sektorean ere. Urtetik urterako bilakaeran, Eraikuntzako lehengaien kostuak % 4,9 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 0,3 jaitsi.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Ekaina 2023

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	125,5	-0,1	3,4
Eraikinak	125,2	0,0	4,2
Obra zibila	126,5	-0,1	0,2
Lehengaiak	127,5	-0,1	3,8
Eraikinak	127,2	-0,1	4,9
Obra zibila	128,7	-0,1	-0,3
Laneskua	119,1	0,0	2,1

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Uztailaren 27a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Honako azpisektore hauetan izaten dituzte igoerarik handienak 2023ko ekainean 2022ko ekainaren aldean Eraikuntzaren sektoreak kontsumitutako lehengaien prezioek: *Ez-metalezko meen industria* (% 16,2), *Zuraren eta kortxoaren industria* (% 12,4), *Kautxua eta plastikoa* (% 10,9) eta *Ez-metalezko meak* (% 8,0). Aitzitik, hauek dira sektoreko lehengaiak diren produktuak ekoizten dituzten eta prezioen jaitsiera izan duten azpisektore nagusiak: *Petrolioia fintzea* (% 35,7 behera) eta *Energia elektrikoa eta gasa* (% 16,1 behera).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p) . Ekaina 2023

	m / m-12
Ezmetalezko meak	8,0
Zuraren eta kortxoaren industria	12,4
Petrolioia fintzea	-35,7
Industria kimikoa	-0,3
Kautxua eta plastikoa	10,9
Produktu mineral ez-metalezkoak	16,2
Metalgintza	-7,9
Metalezko artikulak	2,9
Material elektronikoa	-0,1
Material elektrikoa	3,6
Makineriaren fabrikazioa	6,0
Altzarigintza	4,8
Energia elektrikoa eta gasa	-16,1

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Uztailaren 27a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago nahi izanez gero:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

[Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz](#)

[Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62